



**Elorrioko udala**

Kirola, Gazteria  
eta Jarduera Fisikoa

## **IRAGARKIA**

### **Elorrioko Udalak 2026an kirol elkarteentzako (ohiko jarduerak) dirulaguntza deialdia onartzea. (2026-00520 espedientea)**

Alkateak, 2026ko martxoaren 3an emandako 129. zenbakiko Dekretuaren bidez, kirol elkarteentzako (ohiko jarduerak) 2026. urterako udal dirulaguntzen deialdia onartu zuen. Beraz, dagozkion oinarri espezifikoak osorik argitaratzen dira.

Deialdi hau 2008ko abenduaren 18an egindako Ohiko Osoko Bilkuran onartutako Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileen arabera egin da (2009ko martxoaren 9ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). Bi aldaketa izan zituen: lehena, 2010eko otsailaren 11n Osoko Bilkurak onartua (eta maiatzaren 10ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua) eta bigarrena, 2011ko abenduaren 28an Osoko Bilkurak onartua (2012ko otsailaren 10ean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

Elorrion, 2026ko martxoaren 25ean.

Alkatea, Julene Lazkano Zenitagoia



## **2026AN OHIKO KIROL JARDUERETARAKO ELORRIOKO UDALAREN DIRULAGUNTZA ARAUTZEN DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK.**

Elorrioko Udalak Dirulaguntzen Oinarri Arautzaileak onartu zituen 2008ko abenduaren 18an batutako Udalbatzaren osoko bilkuran, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2009ko martxoaren 9an argitara eman ziren, eta zuzenketak onartu ostean, berriro argitaratu ziren bere osotasunean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2010eko maiatzaren 10ean, 86 zenbakian.

### **1. HELBURUAK ETA ZUZKIDURAK**

Deialdiaren helburua: Kirol arloarekin lotura zuzena duten proiektuak diruz laguntzeko prozedura arautzea.2026 urtea.

Dirulaguntzaren helburua:

- a. Elorrioko kirol elkarteek 2026. urtean egingo dituzten kirol jarduerak diruz laguntzea. Horretarako 80.000,00 euroko dotazioa dago 2026.3400.481.07 diru-atalean (Kirol taldeak).

Aurrekontu-atal honetan, dirulaguntzetarako behar izanez gero, diru-hornidura gehigarria egin daiteke, hartarako deialdi berririk egin behar izan gabe.

### **2.ONURADUNAK**

Dirulaguntza hauek kirol elkarteek eskatu ahal izango dituzte baldin eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren (38/2003 Legea) 13. artikulua edo Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorraren 10. artikulua jasotzen dituzten egoeretako batean ez badaude.

Martxoaren 16koa 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak, 2.4. artikuluan ezartzen du dirulaguntzen onuradun direnek 3. artikulua (printzipio orokorrak), 17.a (estatistikak eta azterlanak) eta 19.4.a (hizkera inklusiboa eta ez-sexista) bete behar dutela, udalaren eta onuradunen arteko erlazioari dagokion denboran eta gaian.

Elorrioko Udalaren Elkarten Udal Erregistroan izena emana duten kirol arloko elkarteak izan daitezke dirulaguntza hauen onuradunak.

### **3.ONURADUN IZATEKO DEBEKUA**

Ezin izango dute eskabiderik aurkeztu, ezta onuradun izan ere, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean, bereziki 13. eta 14. artikuluetan eta Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza Orokorrean jasotako egoera eragozleetako batean dauden kirol-elkarteek.

Ezingo dira onuradun izan administrazio-bidean, lan-bidean edo zigor-bidean berdintasun-eskubidea urratzeagatik eta sexuan oinarritutako bereizkeriari egiteagatik zehazpen irmoa jaso duten pertsona edo entitateak.

Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenak eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrikoak, xedatzen dituzten betebeharrak betetzen ez dituztenak.

Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen penal edo administratiboa izatea, edo horretarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik gabe Bizitzeko Legearen testuategina onartzen duenaren edo Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkerian erortzeagatik gertatutakoak barne.

Kideak aukeratzeko prozesuan edo lan-jardueran sexuan oinarrituta diskriminatzen duten elkarteak edo erakundeak.

### **4.EPEAK**

- Eskariak aurkezteko:  
Maiatzaren 15era arte (hau barne).
- Eskariak ebazteko epea: Udalak sei hilabete baino lehen instrukzioa egin beharko du eta erabakia eman.



## 5. EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Dirulaguntzak emateko erabiliko den prozedura lehiakorra izango da.

Ez dira diruz lagunduko ez senidetasun ekitaldietako gastuak (otorduak, esaterako) ez eta elkartearen helburuarekin zerikusirik ez duten bidaiak ere.

Dirulaguntzaren zenbatekoa inolaz ere ez da izango, dirulaguntza bera edo beste batzuekin batera, diru-sarrera edo baliabideak gehitu eta gero, diruz laguntzen den jardueraren kostua baino handiagoa.

Kirola eta Gazteria Informazio Batzordeak eskabideak aztertu eta, Kirol arloko Idazkaritza Teknikoak egindako balorazioa kontuan hartuta, dagokion irizpena emongo du Elorrioko Udalean eskumena duen organoak dirulaguntzen gaineko erabakia har dezan. Irizpenak eskatzaileen zerrenda eta bakoitzarentzat proposatzen den dirulaguntza zenbat den eta ebaluazio-irizpenak zeintzuk izan diren batuko ditu.

Diruz lagundu ahal izango dira honako gastu hauek:

- Kirol-ekipamendua.
- Federazioko inskripzio eta lizentzia-gastuak.
- Partidu edo lehiaketek sortutako gastu zuzenak, hala nola, garaikur, bidaia edo desplazamenduak, kirolari eta teknikari-en bazkariak lehiaketa egunetan, epaile gastuak eta partiduetako beste gastu ezinbesteko batzuk.
- Iragarki gastuak.
- Funtzionamendu-gastutzat hartzen direnak, hala nola, tresna informatikoen material txikiak, telefono gastuak, fotokopiak, bulego materiala, postako gastuak eta antzekoak.
- Klubeko langileen soldatak, gizarte segurantza eta atxikipenak.
- Primak, dirutan emandako sariak eta opariak.

Ez dira diruz lagunduko:

- Senidetasun edo beste ospakizun batzuetako jatekoak eta edariak.
- Elkartearentzako lan egiteagatik pertsonen ordaindutako dohaintzak eta kalte-ordainak.

Udalak ziurtatuko du helburu sozialak eta kirola sustatzen duten Elorrioko elkarteek lokal bat dutela egoitza gisa, altzari egokiekin, Internetarako sarbidearekin eta beren jarduerak behar bezala zabalteko eta zelaia edo instalazioa doan erabiltzeko baliabideekin.

### *Eskaerak ebaluatzeko irizpideak*

Jarduera diruz laguntzeko jarritako kopurua, atal bakoitzerako ezarritako ehunekoen arabera zatituko da. Atal bakoitzeko kopuru hori zati klubei edo kirol-taldeei esleitutako puntuak eragiketa egingo da (jarraian jasotako balorazio-adierazleen arabera), modu horretan puntu baten balio ekonomikoa kalkulatu da. Balio ekonomiko horrek bider kirol-klubari esleitutako puntuak zehaztuko du atal bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa. Atal guztien baturak xedatuko du klub bakoitzari eman beharreko zenbateko osoa.

Jarduera diruz laguntzeko zenbatekoa (80.000,00 €) era honetara zatituko da:

- a. Klubek eta kirol elkarteek antolatutako kirol eta gizarte jarduerarentzako diru-laguntza. Honako ehuneko honen arabera baloratuko da: 75.000 €.
- b. Elorrioren irudia eta bertako kultura balioak hedatzeko diru-laguntza: 5.000 €.

**Kirol eta gizarte jardueragatiko dirulaguntza** atalerako aurreikusitako zenbatekoa (**kirol eta gizarte jarduera bera 75.000,00 €**) honako modu honetan banatuko da:

### *Kirol irizpideak*

1. Lizentzia-kopurua (2011 urtetik aurrera jaiotakoak): 10.875,00 €
2. Kirol maila guztiak izatea: 1.425,00 €



## Elorrioko udala

Kirola, Gazteria  
eta Jarduera Fisikoa

3. Entrenatzaileen maila: 2.850,00 €
4. Txapelketaren kategoria: 10.800,00 €
5. Lizentzia guztien kostua: 8.610,00 €

### *Gizarte irizpideak*

1. Kirola Guztiontzat antolatzearen: 5.775,00 €
2. Elorriarren artean kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko jarduerak antolatzea: 12.075,00 €

### *Heziketa eta trebakuntza irizpideak*

1. Publikoa edo kirolaria sentsibilizatzeko kanpainak antolatzea, kirolarekin, jarduera fisikoarekin eta osasunarekin lotuta: 1.425,00 €
2. Taldeko kirolari eta teknikariak kirolean trebatzeko ikastaroak antolatzea eta bultzatzea: 2.865,00 €

### *Euskara sustatzea*

1. Euskararen erabilera: 3.600,00 €

Dirulaguntza kobratu ahal izateko beharrezkoa izango da Elorrioko Udalak ezarritako hizkuntza baldintzak betetzea.

### *Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna sustatzea*

1. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna zehazki sustatzeko jarduerak eta erabakiak: 7.200,00 €

### *Eskola kirola sustatzea*

1. Lizentzia-kopurua (2012 eta 2017 urteen artean jaiotakoak, biak barne, Bizkaiko Eskola Kirola arautzen duen 99/2018 dekretuari jarraikiz). 7.500,00 €.

Atalen bat hutsik geratzen bada, taldeek eskaerarik egin ez dutelako, atalari dagokion zenbatekoa gainontzeko atalen artean banatuko da ezarritako proportzioen arabera.

Atal bakoitza neurtzeko irizpideak honako hauek dira:

1. Lizentzia-kopurua:

- a) Emakumezkoen txapelketarako lizentzia edo pertsona ez bitarren konpetizio lizentziak: 2 puntu lizentziako.
- b) Gizonezkoen txapelketarako lizentzia: 1 puntu lizentziako.
- c) partehartze-lizentziak: 0,5 puntu lizentziako.

2. Kirol maila guztiak izatea:

- a) Bai: 1 puntu.
- b) Ez: 0 puntu

3. Entrenatzaileen maila: Entrenatzaile-lanetan dabilzan pertsona guztiak hartuko dira kontuan.

- a) Titulu gabea: 0 puntu.
- b) I. mailako entrenatzailea edo erregionala: 1 puntu gizonezkoak, 1,5 puntu emakumezkoak edo ez bitarrentzat.
- c) II. Mailako entrenatzailea edo autonomikoa, Lanbide Heziketa edo kirol entrenamenduarekin lotutako diplomatura: 2 puntu gizonezkoak, 3 puntu emakumezkoak edo ez bitarrak.



## Elorrioko udala

Kirola, Gazteria  
eta Jarduera Fisikoa

d) III. Mailako entrenatzailea edo nazionala, kirol zientzietan lizentziatua: 3 puntu gizonezkoak, 4,5 puntu emakumezkoak edo ez bitarrak

4. Txapelketa-maila. Talde guztien txapelketak non egiten dituzten kontuan hartuko da, bai taldean bai bakarkakoan, joan-etorri guztiak txapelketa arruntetan eta baita joan diren kirolarien kopurua.

- a) Erregional-maila (Bizkaia): 1 puntu.
- b) Autonomia-maila: 2 puntu.
- c) Estatu-maila edo handiagoa: 4 puntu.

5. Federazioko lizentzien kostua. Klubak dituen federazioko lizentzia guztien kostua kontutan hartuko da, talde bakoitzaren gastuaren arabera dirulaguntzaren zenbateko guztia hainbanatuz.

6. Kirola Guztiontzat antolatzea. Kontuan hartuko dira kirola praktikatzeko arazoak dituzten taldeei zuzendutako eskaintza zehatzak, jarduerak irauten duen denbora eta parte-hartzaile kopurua baloratuko dira.

7. Elorriarren artean kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko jarduerak antolatzea. Taldeek kirola eta jarduera fisikoa elorriarren artean sustatzeko egindako ahaleginak baloratuko dira, hala nola udalaren gizarte bizitzan parte-hartzea, jarduerak irauten duen denbora eta parte-hartzaile kopurua.

8. Publikoa edo kirolaria sentsibilizatzeko kanpainak antolatzea, kirolarekin, jarduera fisikoarekin eta osasunarekin lotuta antolatzea. Jarduerak irauten duen denbora eta parte-hartzaile kopurua baloratuko dira.

9. Taldeko kirolari eta teknikariak kirolean trebatzeko ikastaroak antolatzea eta bultzatzea. Jarduerak irauten duen denbora eta parte-hartzaile kopurua neurtuko da. Udalak antolatzen dituen jardueren asistentzia nahitaezkoa izango da.

10. Euskararen erabilera. Euskararen erabilera klubaren komunikazioetan lehen hizkuntza izatea baloratuko da, Udalarekiko harremanetan bereziki. Gaztelaniaz bakarrik egindako komunikazioetako proportzioa dirulaguntzatik deskontatuko da.

11. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bardintasuna zehazki sustatzeko jarduerak eta erabakiak. Eskaintza zehatzak baloratuko dira edo elkarrekin elkartanean egindakoak emakumezkoen artean kirola sustatzeko edo egungo baldintzak hobegotzeko

12. Lizentzia-kopurua: Eskola kirola:

- a) Emakumezkoen edo pertsona ez bitarren eskola kiroleko lizentzia: 2 puntu lizentziako.
- b) Gizonezkoen eskola kiroleko lizentzia: 1 puntu lizentziako.

**Elorrioren irudia eta bertako kultura balioak hedatzeko -5.000,00 €-** Elorrioko Kirol Batzordeak esleituko du baliozko judizioen arabera eta honako honen arabera neurtuko da:

- a) Jardueraren bolumena Elorriotik kanpora: jokaturako egunak edo txapelketa kopurua.
- b) Jardueraren eremu geografikoa:
  - Eskualdea (Bizkaia): 1 puntu.
  - Autonomia: 2 puntu.
  - Estatu edo handiagoa: 3 puntu.
- c) Publizitatearen eragina: Txapelketara bertaratutako batz besteko ikusle kopurua.
- d) Kultura arloko balioak:
  - Bertako kirola: 3 puntu.
  - Bertakoa ez den kirola: 1 puntu.
- e) Kirolean emakumeen parte-hartzea bultzatzeko ekintzak:
  - Kirol ekintzak emakumentzat edo ez bitarrentzat: 3 puntu
  - Kirol ekintza mistoak: 1 puntu
  - Kirol ekintzak gizonezkoentzat: 0 puntu

## 6. ESKARIAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua ezarritakoaren arabera, eskaerak Elorrioko Udalaren plataforma elektronikoen bidez aurkeztuko dira ([www.elorrio.eus](http://www.elorrio.eus)).



Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- a) Eskari inprimakia behar bezala beteta (I. Eranskina).
- b) Elkarteko monitore, entrenatzaile eta zuzendari guztien Natura Sexualeko Delitu Zirutagiria.
- c) Elorrioko Udalak, eskura dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, ondorengo datuei buruzko beharrezko egiaztapenak eta kontsultak egitearen, baliozko eta arrazoituta aurkakotza egiten bada, (oinarrietako 17. puntua), dokumentazio hori aurkeztu beharko du.
  - Zerga-betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria (BFA)
  - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrarekiko (GSL) betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
  - Nortasuna egiaztatzea.
- d) Hirugarrenen alta behar bezala beteta. Agiri hauek ez dira aurkeztu behar izango aurreko urteetan Elorrioko Udalak egindako deialdietan aurkeztu badira, beti ere, agiri horiek edo hauek jasotzen dituzten datuak aldatu ez badira.  
<https://www.elorrio.eus/eu-ES/lzapideak/Orriak/info-tramite.aspx?id=295cb091-c85c-4be0-b4f4-c485119cdb35>

Eskaera egitean eskatzaileak oinarri hauek eta deialdia baldintza barik onartzen ditu, eta baimena ematen dio Elorrioko Udalari beharrezko egiaztapenak egiteko.

## **7. INSTRUKZIOA, ERABAKIA ETA BIRFORMULAZIOA**

Eskariak aurkezteko epea amaituta, eskariak aztertuko dira eta akatsak edo hutsuneak baditu, 10 eguneko epea izango dute elkarte interesdunek falta den dokumentazioa aurkezteko. Eta jakinaraziko zaie okerrak zuzendu ezean eskaera ez dela onartuko.

Epe horren ostean, kirol arloko udal teknikariek eskariak aztertuko dituzte eta instrukzioa egingo dute, informazio batzordeak erabakia eman behar duen Tokiko Gobernu Batzarrari bere irizpena helarazteko.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 24.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, instrukzio-organoak, espediente eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta. Interesdunei jakinarazi beharko zaie, eta 10 eguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko.

Birformulazio horiek informazio batzordeak onartu edo baztertu egin ditzake, eta beharrezko kasuetan, berriro irizpena helarazi.

Birformulazio edo uko egiterik egon ezean, emandako dirulaguntza onartzen dela ulertzen da.

Hartutako erabakiak administrazio bideari amaiera emango dio, eta erabakiaren kontra Udaleko alkatearen aurrean berraztertze errekurtsoa tartekatze aukera egongo da, edo baita zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatze Bilboko dagokion auzitegian. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulua eta hurrengoek, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen arabera.

Fase honetan Elorrioko Udalak, instrukzio organoaren bitartez, aurkeztu diren proposamenak konparatu eta baloratu beharko ditu, onuraduna nor izango den zehazteko emakume eta gizonen arteko berdintasun irizpidea kontuan hartuz.

## **8. BATERAGARRITASUNA**

Dirulaguntza hauek, helburu bera duten beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoak, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak dira, ez bada dirulaguntzen berezitasunetarikoa, bateragarria ez izatea. Edozein modutan, diru- laguntza inoiz ez da izango diruz laguntzen den proiektuaren gastua baino handiagoa.

## **9. PUBLIZITATEA**

Elkarte onuradunek Elorrioko Udaletik jasotako diru- laguntzaren publizitatea egingo dute uztailaren 21eko 887/2006 EDak, azaroaren 17ko 38/2003 Diru- laguntzen Lege Orokorra garatzen duen Erregelamenduak aurreikusten duenari jarraituz.

Horretarako, honako modu honetan egingo dute publizitatea:



## Elorrioko udala

Kirola, Gazteria  
eta Jarduera Fisikoa

- Kartel eta eskuorrietan: Udalaren armarrria agertuko da ekimenaren babesle dela adieraziz. Ekimena antolatzen duen erakundea ere agertuko da.
- Elkarrizketa, aurkezpen edota beste edozein agerraldi publikotan ere ekimenak Udalaren diru- laguntza jaso duela aipatu beharko da, agerpen hori ahozkoa zein idatzizkoa izanda ere.
- Udalak horretarako dituen lekuetan (web-orrialdea...) 15 eguneko aurrerapenez, gutxienez.

Ulertzen da publizitateak dirulaguntzaren %10eko balioa izan dezakeela. Beraz, agindu bezala publizitatu ezean, kopuru hori itzultzea eskatuko da.

### 10. ORDAINKETAK

Ebazpenaren eta birformulatzeko entzunaldi-epearen ondoren, dirulaguntza Udalak emandako zenbatekoaren % 65 ordainduko die onuradunei. Gainerako % 35a urteko likidazio zuzena egin ondoren ordainduko da.

### 11. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

- Dirulaguntzak oinarri duen helburua lortzea, proiektua burutzea, jarduera egitea edo portaera hartzea.
- Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta dirulaguntzak oinarri duen jarduera bete dela eta helburua lortu dela ziurtatzea.
- Kontroleko organo eskudunek egin ditzaketen egiaztatze eta kontrol finantzarioei men egitea, horretarako beharrezko informazio guztia aurkeztuz.
- Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako diru laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, jasotako funtsei emandako aplikazioa egiaztatu aurretik.
- Dirulaguntza emateari buruzko ebazpen-proposamena eman aurretik, bere zerga- betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean dagoela ziurtatzea.
- Kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakiokeen merkataritzarako eta sektoreetarako legeek exijitutako baldintzen arabera, beharbezala, ikuskatutako kontabilitate-liburuak, bideratutako erregistroak eta gainerako agiriak edukitzea, eta dirulaguntzen oinarri erregulatzailak eskatutako kontabilitate egoerak eta erregistro zehatzak izatea, egiaztatze eta kontroleko ahalmenak modu egokian garatuko direla bermatzeko.
- Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze eta kontroleko jarduerak aurrera eraman ahal izateko.
- Dirulaguntzen deialdian ezarritako hedatze- neurriak hartzea, dirulaguntzak helburu duen proiektua, jarduera edo portaera Elorrioko Udalaren kolaborazioarekin edota finantzazioarekin burutu dela jakinarazteko.
- Jasotako funtsak itzultzea Arau Erregulatzailen 42. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

### BETEBEHARREKO IRIZPIDEAK BERDINTASUNAREN ARLOAN

Onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Diruz lagundutako jarduera orok komunikazio inklusiboa erabiltzea, non ez diren erabiliko pertsonak sexu, genero, jatorri edo bestelakoengatik umiliatu, degradatu edo estereotipatzen dituzten irudiak edo idatzizko edozein komunikazio-elementu. Berdintasuna eta pertsonen aniztasuna irudikatzen dituzten irudiak eta hizkuntza bultzatuko dira.
- Memoretan, hala badagokio, onuradunen gutxi gorabeherako kopurua eta generoa bereiztea; baita beraien profila ere: gazteak, adinekoak, aniztasun funtzionaleko pertsonak...
- Erabiliko den material guztietan estereotipo sexistak edo emakumeak diskriminatzen dituen adierazpenik ez agertzea.
- Sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta jokaera transhomofobikoa saihesteko eta arreta egiteko neurriak izatea.
- Dagokionean, dirulaguntzak jaso dituen proiektu orok genero-ikuspegia aintzat hartzea proiektuaren fase guztietan.



## Elorrioko udala

Kirola, Gazteria  
eta Jarduera Fisikoa

### BETEBEHARRAKO IRIZPIDEAK HIZKUNTZA ARLOAN

Deialdi honen oinarriak lotuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 6.artikuluaren ezarritakoari, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hura garatzen duten hizkuntza-ofizialtasun bikoitzaren erregimenari; eta, era berean, Elorrioko Udalak onartutako Euskara Ordenantzari. Hori horrela, elebitasunaren eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuak izan daitezzen, klubek edo kirol elkarteek bi hizkuntzen koofizialtasuna kontuan hartuta bete beharko dute euren eginkizuna. Udalak onartutako Hizkuntza Irizpideetako 10.puntuari jasotzen dira hizkuntzak erabiltzeko jarraibideak. Honako hauek lirateke bete beharreko hizkuntza irizpideak:

- Idatzizko komunikazioak: oro har herritarrei zuzendutako idatzizko komunikazioak, hau da, oharra, kartelak, iragarkiak eta beste edozein argitalpen, gutxienez euskaraz argitaratu dira; euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratu behar izanez gero, euskarazko testua letraren tamainagatik eta erabilitako euskarriaren duen kokapenagatik nabarmendu egingo da.
- Ahozko komunikazioak: ahal den neurrian, euskara izango da administrazioarekin zein herritarrekin erabiliko den hizkuntza. Herritarrei zuzendutako ekitaldi publikoetan aurkezpenak euskaraz egingo dira eta, ele bitan egitekotan, lehenengo euskaraz egingo dira. 18 urtetik beherakoei zuzendutako ekitaldiak edo jarduerak euskaraz bakarrik egitea gomendatzen da.
- Komunikabideak eta sare sozialak: informazioa eta publizitatea euskaraz edo ele bitan emango da.

### 12. ARAU-HAUSTEAK, ZEHAPENAK ETA ITZULKETAK

Arau-hausteak egitea eta zehapenak ezartzea, bai eta dirua itzultzeko arrazoiak ere, Dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira.

### 13. ZURIKETA

Erakunde onuradunek 2027ko otsailaren 26a izango dute likidazioa aurkezteko azken eguna (egun hori barne):

- Eskari inprimakia behar bezala beteta (I. Eranskina).
- Publikazioak eta kartelak, esku-orriak e.a. ale bana.
- Diru-sarrera eta gastuen gaineko zerrenda, burututako ekintza bakoitzeko.
- Fakturen fotokopia.
- Ekintza bererako beste diru-laguntza pribatu edo publikoak ez direla jaso adierazten duen aitopena.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Ez dira aurkeztu beharko, baldin eta Elorrioko Udalarik horiek lortzeko baimena ematen bazaio.

### 14. DATU BABESA

2016/679 Erregelamendu Orokorraren (DBEO) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren (DBLOPDGDD) arabera, eskatzaileari jakinarazten zaio emandako datu pertsonalak honako baldintzen arabera tratatuko direla:

Arduraduna: Elorrioko udala – [dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus) / Datuen babeserako ordezkaria: Elorrioko Udaleko idazkaria [dpo@elorrio.eus](mailto:dpo@elorrio.eus).

Helburua eta datuak gordetzeko epeak edo irizpideak: Dirulaguntzen izapidetzea.

Legitimazioa: Dirulaguntzen Lege Orokorrak eta Udal Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritako lege-betebeharra.

Kontserbazioa: Datuak gordeko dira aipatutako helburua betetzeko behar den denbora zehatz-mehatz, eta, edozein kasutan, aplikatu beharreko artxibo-araudiak ezartzen duena errespetatuz.

Hartzaileak: Ez zaie daturik lagako hirugarrenei, lege-betebeharrik izan ezean. Arduradunak soilik jakinaraziko dizkie datuak agintari eskudunei, betebeharrak legalak betetzeko edo agintaritzaren eskaerei erantzuteko beharrezkoa denean.

Eskubideak: Eskatzaile diren pertsonak eta elkarteek honako eskubideak erabili ditzakete: atzipena, zuzenketa, mugaketa, ezabaketa, aurka egitea edo eramangarritasuna. Horretarako, idatziz jo beharko dute Elorrioko udalaren erregistro



## Elorrioko udala

Kirola, Gazteria  
eta Jarduera Fisikoa

orokorrera edo datu-babeserako ordezkariaren helbide elektronikora (dpo@elorrio.eus). NANaren kopia edo sinadura elektronikoa aitortua erantsi beharko da.

Informazio gehigarria: Kontsulta daiteke hemen: <http://www.elorrio.eus>.

Erreferentzia juridikoa: Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoa.

Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

### 15. KLAUSULA GEHIGARRIA

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan Oinarri Erregulatuzaileetan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Halaber, 38/2003 Dirulaguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.

### 16. ARAUBIDE JURIDIKOA

Oinarri hauetan aurreikusi ez denerako honako hauetan aurreikusitakora joko da: Dirulaguntzen Udal Ordenantza Orokorra (2010eko maiatzaren 10eko 86 BAO), azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, eta 887/2003 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena.

### 17. ELKARRERAGINGARRITASUNA

Elorrioko Udalak dokumentuak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei, elkarreragingarritasunaren esparruan,

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 5. artikulua arabera. Horren helburua da eskatutako dirulaguntzen kudeaketa erraztea eta administrazio-izapideen eraginkortasuna bermatzea.

Udal honek beste administrazio batzuetan norbere datuak eta dokumentuak kontsulta ez ditzan eskubidea du eskatzaileak. Eskubide horretaz baliatzea erabakitzen badu, behar bezala arrazoitutako idatzia egin beharko du, eta zergatia adierazi. Behar den moduan arrazoi gabeko erabateko ezetzik ez da onartuko.

Datuak eskatzearen aurka egiteko idatzia dirulaguntzak eskatzeko epean aurkeztu behar du.

Oposiziorako idatzian honako datu hauek zehaztu behar ditu behintzat, eskatzaileak:

- Eskatzailearen datuak.
- Zer dokumentu edo datuei egiten dien aurka zehaztu.
- Informazioa kontsultatzearen aurka egiteko arrazoiak adierazi eta haien justifikazioa.

Eskatzaileak baliozko oposizio arrazoitua aurkezten badu, Administrazioak oposizio hori ebaluatuko du, eta erabakiko du ea egokia den beste administrazio batzuei dokumentuak eskatzen jarraitzea. Oposizioa ezesten bada, dirulaguntza izapidetzeko behar den informazioa eskatuko da.

Dirulaguntzen eskaerak sinatzeak berekin dakar dirulaguntzaren oinarrietako baldintzak onartzea, eta dokumentuak kontsultatzearen aurka egiteko eskubidea aitortzen du, bai eta oposizio hori dirulaguntzen eskabideak aurkezteko epearen barruan modu arrazoituan aurkezteko betebeharra ere.

Arestian adierazitakoa gardentasunaren eta datuen babesaren arloan indarrean dagoen araudiak arautuko du, bereziki, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak eta (EB) 2016/679 Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak.